

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN IRAUNKORRAREN BILERAREN AKTA

Eguna: 2014ko uztailaren 29a

Tokia: Donostiako Udaleko Gobernu Batzarraren Aretoa

Bileran izan direnak.

- BATZORDEBURUA: Ricardo Burutaran Ferre, alkatearen izenean.

- KIDEAK:
 - Ricardo Burutaran Ferre, Batzordeburuorde lehena eta Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi eskuordeduna.
 - Martin Ibabe Ezeiza, EAJ/PNV taldearen izenean
 - Enrique Ramos Vispo, PSE-EE udal taldearen izenean
 - Jose Luis Arrue Pinto eta Vicente Garcia Momblona, PP udal taldearen izenean
 - Juan Mari Artola Ledesma, Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoaren kudeatzailea
 - David Rebollo Aguayo, hirigintzako zuzendaria.
 - Marko Sierra, Haritzalde Naturzaleen Elkartearen izenean

Gonbidatuta etorritakoak.

- Iñaki Irurtia, Ingurumeneko zuzendaria.
- Patricio Lasa, Kalapie elkartekoa.
- Martin Arregi, San Bartolomé Muinoa S.A.koa.
- Larzabal eta Iriondo arkitektoak.
- Cuevas udal arkitektoa.
- Lourdes Lazaro Martinez, merkatarien elkarteen izenean.
- Rafael Garcia-Velilla.
- Miren Apalategi eta Imanol Jimenez.

- **IDAZKARIA:**

- Carlos Azcoaga Mendizabal, Udaleko idazkari nagusiak eskuordea emanda.

Eguerdiko ordu batean (13:00 h) hasi da Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen iraunkorraren bilera, egindako deialdiari erantzunez, gai zerrenda hau duela:

- 1. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen Iraunkorrak 2014ko otsailaren 24an izandako bileraren akta onartzea (Hirigintza Plan Orokorrak “TABAKALERA EG.03” hirigintza arlorako agintzen duena aldatzea eta Hirigintza Plan Orokorrak “ETXADI AY.15” hirigintza arloko G.00 komunitate ekipamenduko lursailarentzat (San Alberto Magno alemaniar eskola) agintzen duena aldatzea).**

Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen Iraunkorrak 2014ko otsailaren 24an izandako bileraren akta irakurri eta aho batez onartu dute.

Haritzalderen ordezkariak esan du deialdian jarritako ordurako etorri zela hura bilerara baina beste inor ere ez zela han.

Deialdian deskuiduren bat izan bazen, barkatzeko eskatu dio batzordeburuak.

- 2. Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak San Bartolome CE.05 hirigintza alorrerako agintzen duena aldatzeari hasierako onarpena ematea.**

Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi eskuordedun Ricardo Burutaranek hitz egin du, eta Udalbatzak 2014ko ekainaren 26an hasierako onarpena emandako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa honen xedeak azaldu ditu.

Ondoren, plana idatzi duten arkitektoek, Larzabal eta Iriondo arkitektoek, proiektuaren xehetasunak eman dituzte. Plan honek beste antolaketa bat dakar San Bartolome muinoaren gainaldearentzat.

Haien ondoren, beste hauek hitz egin dute:

Kalapieren ordezkariak kezka azaldu du bizikletak uzteko pentsatutako tokiak direla eta.

Adierazi diote Arroka plazan badela horretarako toki bat eta orain antolatuko den arloan ere izan daitezkeela beste toki batzuk.

Rafael Garcia-Velillak esan du kezka ematen diola Zerutxo etxea desagertzeak eta zerbitzutarako erabilerak jartzeak, ez zaiola denen interesekoak direnik iruditzen eta.

Zerutxo etxeari denen irudimenean delako eutsi behar zaiola esan du, eta parkeak galdu egingo duela izaera hori.

Bainuetxean egin asmo denaz, berriz, esan du haren ustetan ez dela epaitegietan hartutako epaiak agindutakorik betetzen.

Ricardo Burutaranek esan du Udalak ez duela aldaketa hau interes ekonomikoagatik aurkeztu. Asmoa da Udala, baltzua eta muinoaren eta hormaren alde auzitegietara jo zuten pertsonak ados jartzea ebatzi gabe dagoen kontu batean: horma eta muinoa integratzea esku-hartzean, babesteko eta balioa emateko, eta horretarako, pertsonen gozamenerako beste espazio batzuk sortzea, bai eta talaia-begiraleku bat ere.

Irtenbide horrek errespetatu egiten ditu berriki onartutako Hirigintza Ondare Katalogatua Babesteko Plan Berezia eta Auzitegi Gorenaren epaia. Zerutxo etxea botata komentua eta muinoa ikusteko moduan jarri nahi dituzte.

Miren Apalategik esan du Zerutxoko eta bainuetxeko esku-hartzea ez dela Auzitegi Gorenaren epaiak jartzen duenetik ateratzen. Orobat, esan du Plan Orokorraren aldaketa hau sustatu dutenekin batera lan egin dutela haiek, epaitegiak emandako ebazpena bete dadin, hain zuzen ere. Hala ere, alegazioak aurkeztuko dituztela esan du, proposamenak hobetzeko.

Marco Sierrak 4.1.1 planoan Autocad-en izatea eskatu du, proposatutako esku-hartzea hobeto aztertzeko, eta parkeko esku-hartzea beste era gozoago eta bigunago batean egin daitekeela.

Adierazi du hasierako onarpena eman eta gero ere izango dela dokumentua hobetzeko modua, eta, horrela, alegazio batzuk egingo dituztela.

Lourdes Lazarok uste du zerbitzutarako kalifikatutako lurraldea ez dagoela derrigor merkataritzarako izan beharrik.

Merkataritzarako erabilera handia izateak kalte handia eragin diezaieke hiriko denda txikiei. Beraz, begiratu egin beharko dira zer erabilera zehatz izango dituen zerbitzutarako erabilerak, eta, horretarako, erabakigarria izango da merkataritza eskaeraren gainean eskatuko den azterketa.

Hala berean, ondo iruditzen zaio hotela jartzea komentuan.

Ricardo Burutaranek esan du merkataritza eskaeraren gaineko azterketak datu garrantzitsuak emango dituela eta datuok aztertu egingo dituztela. Nabarmendu du kontua dela proposamenarekin asmatzea, gaur egungo eskaintza osatzeko.

Era berean, esan du erabilerak tertziarioak direla eta horien artean sartzen dela merkataritza erabilera, baina denak ez direla izango merkataritzakoak. Kontua da fluxu berriak sortzea inguruko saltokiei berritzen laguntzeko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak aho batez adierazi du jaso duela San Bartolome CE.03 hirigintza esparruari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientearen berri.

3. Hirigintza Antolaketako Plan Orokorrak "OLETA AL.07", "HARRIA AL.08", "BUENAVISTA GAINA AL.11" eta "AUDITZ AKULAR AL.20" eremuetarako agintzen duena aldatzeari hasierako onarpena ematea.

Aurrena Udaleko arkitekto Juan Carlos Cuevasek parte hartu du, Udalbatzak 2014ko uztailaren 24an

egin zuen osoko bileran hasierako onarpena emandako proiektua idatzi dutenetako batek, alegia. Zabal bezain xehe azaldu du Altzako kiroldegiaeren tokian berria egiteko xedea duen proiektu hau.

Haritzalderen ordezkariak adierazi du kontuan izan behar dela auzotarrek eremu horretan aisialdirako eta gune libretarako tokiak izatea eskatzen dutela.

PSE-EE udal taldearen ordezkariak galdetu du ea erabat bota behar den kiroldegia.

Juan Carlos Cuevasek Kirol Patronatuak sustatutako ideia lehiaketaren bidez aztertzen ari diren alternatiben berri eman du.

EAJ/PNV udal taldearen ordezkariak adierazi du inguru horretan den aparkaleku faltak ere ematen diela kezka auzotarrei, eta, beraz, arazo hori eta kontuan izan behar litzatekeela proiektua gartzekoan.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak aho batez adierazi du jaso duela "OLETA AL.07", "HARRIA AL.08", "BUENAVISTA GAINA AL.11" eta "AUDITZ AKULAR AL.20" hirigintza esparruei dagokien Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedientearen berri.

Eta, beste aztergairik ez denez, 14:35ean buru eman diote bilerari.

BATZORDEBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferre

Izpta.: Carlos Azcoaga Mendizabal